

BANDOA / BANDO (B29-2021)

OSTALARITZAKO TERRAZAK COVID-19REN MURRIZKETAK BUKATU ONDOREN.

TERRAZAS HOSTELERÍA TRAS EL FIN DE LAS RESTRICCIONES POR COVID-19.

Duela urtebete inguru, Berako Udalak terrazak handitzeko aukera eman zien ostalaritza establezimenduei, ahal zen neurrian tabernaren inguruan zegoen espazio publikoa erabiliz. Ostalaritza sektoreari laguntzea zen neurri horren arrazoia, edukiera murrizketei eta abarrei aurre egin ahal izateko.

Egoera epidemiologiko onaren ondorioz, murrizketa horiek 2021eko urriaren 1etik aurrera ondoriorik gabe geratu direnean, jatorrizko egoerara itzuli behar da terrazen kasuan ere.

Ondorioz, agintzen dut **terrazak jatorrizko egoerara itzul daitezela 2021eko urriaren 9a baino lehen, hau da, dagokion lizentzian baimendutako mahaiak eta hartutako azalera**. Beraz, eraginik gabe geratzen dira pandemiaren eraginez ohiz kanpo onartu ziren terrazen handitze guztiak.

Nolanahi ere, gogorazten dut higiene eta prebentzio neurriak betetzen jarraitu behar dela.

Horren berri ematen dut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hace cerca de un año, el Ayuntamiento de Bera facilitó a los establecimientos hosteleros la posibilidad de ampliar terrazas, utilizando el espacio público existente alrededor del bar, en la medida en que ello fuera posible, como una medida de apoyo al sector de la hostelería para hacer frente a las restricciones de aforo, etc.

Una vez que desde el día 1 de octubre de 2021 han quedado sin efecto dichas restricciones como consecuencia de la favorable situación epidemiológica, procede volver, también, a la situación de origen en el caso de las terrazas.

En consecuencia, ordeno que **antes del día 9 de octubre de 2021 las terrazas vuelvan a la situación original de superficie ocupada y mesas autorizadas en la licencia correspondiente**. Quedan, por tanto, sin efecto todas las ampliaciones de terrazas permitidas con carácter extraordinario con motivo de la pandemia.

En cualquier caso, se recuerda la necesidad de seguir cumpliendo las medidas de higiene y prevención.

Lo que hago público a los efectos oportunos.

Bera, 2021-10-05.

SINADURA DIGITALA / FIRMA DIGITAL.
ALKATEA / EL ALCALDE, Aitor Elexpuru Egaña